

Idea, sinesmen edo balio berberak ez dituztenekin gustura ez dauden gazteen ehunekoa gora doa


Gorakada %10etik %17ra artekoa izan da, 2000tik 2012ra.

Irailaren 27an eta 28an eta urriaren 1ean [Gazteen Euskal Behatokiak "Gazteak gizarte heterogeneoan: nola jokutzen dute?"](#) ikastaroa emango duela-eta, hainbat datu eskainiko dugu EAEko gazteek beste ideia, sinesmen edo balio desberdinak dituzten lagunen aurrean azaldutako jarrerari buruz.

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko lagin adierazgarriari 2012ko martxoan egindako inkesta batekoak dira datu hauek.

Inkesta horretako emaitzen arabera, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %17 "oso edo nahikoa desgogara" daude eurenaz bestelako ideiak, sinesmenak edo balioak dituzten pertsonekin.

Ehuneko horrek gora egin du aurreko urteekin alderatuta. Arazo handia da gazteengan kultura-arteko elkarrizketa sustatze aldera.




Zeintzuk dira bestelako ideiak eta balioak dituztenekin deseroso sentitzen direla neurri handiengan dioten kolektiboak?

Mutilengan neskegan baino ehuneko handixeagoak erregistratzen dira: %19 eta %16, hurrenez hurren.

20 urtera artekoengan ere ehuneko garaixeagoak aurki daitezke: 15 eta 19 urteko bitartekoen artean %19 dira gaizki sentitzen direnak; 20 eta 24 urte bitartekoen artean, %16; eta 25 eta 29 urte bitartekoengan %17.

Lurralde historikoei erreparatuta, Bizkaiko gazteen artean dago ehunekorik altuena: %29k diote desgogara egoten direla. Araban eta Gipuzkoan, ordea, proportzio hori %14koa da.

Bestetik, udalerraren neurriak behera egin ahala, gero eta handiagoa da beste ideia edo balio batzuk dituztenekin gustura sentitzen ez direnen ehunekoa. Hartara, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren lau gaztetatik batek dio ez dagoela eroso bere ideia eta balio berberak ez dituztenekin.



Nolanahi ere, adierazi beharra dago intolerantzia ideologikoa ez dela norantza bakarrekoa. Aipatzekoa da, adibidez, EAEn bizi diren atzeritar gazteen artean ere, euren ideia eta balio berberak ez dituztenekin gustura ez daudenen portzentajea %16koa dela, Euskadiko gazteria osoaren batezbestekoarena oso antzekoa (%17).

Horrenbestez, beharrezkoa da gazteen artean kontzientziazio-lana egitea, kultura- eta ideologia-aniztasunak duen garrantziaz eta dakarren aberastasun pertsonal eta sozialaz.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

